JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**

al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**

Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**46. zk.** **2006ko apirilaren 24a, astelehena - Lunes, 24 de abril de 2006** **nº 46**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2.467**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2006ko apirilaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi dute:

7/2006 FORU ARAUA, APIRILAREN 10EKOA, EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA BERRESTEKOA. HITZARMENAREN XEDEA: VITORIA-GASTEIZEN TRANBIA JARTZEA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak, legez administrazio bakoitzari dagozkion eskumenak erabilizi, azterlanak egin dituzte Vitoria-Gasteizen tranbia sistema jartzeko. Helburu horrekin, trazadura proiektu egokia gertatu da, ekonomia eta gizarte aldetik onuragarriena iritzitako alternatiba aukeratuz.

Obra zibilaren, azpiegituren eta proiektu horretan jasotzen diren gainerako instalazioen lizitazio oinarria 63.910.373,41 eurokoa da (BEZ barne).

Hau da esku hartzen duen administrazio bakoitzak proiektu horren finantzaketan izango duen partaidetza:

Eusko Jaurlaritza: 41.541.742,72 euro (% 65).
Arabako Foru Aldundia: 11.184.315,35 euro (% 17,5).
Vitoria-Gasteizko Udala: 11.184.315,35 euro (% 17,5).

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 6.1.2. artikuluan dioena kontuan hartuz,

Artikulu bakarra. Berresten da Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, Vitoria-Gasteizen tranbia jartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirilaren 10a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2.467**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 10 de abril de 2006, han aprobado la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 7/2006, DE 10 DE ABRIL, DE RATIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ PARA LA IMPLANTACIÓN DEL TRANVÍA EN VITORIA-GASTEIZ.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en ejercicio cada administración de las competencias que por Ley les corresponden, han realizado varios estudios para la implantación del sistema tranviario en Vitoria-Gasteiz, a cuyo fin se ha elaborado el correspondiente Proyecto de trazado con la alternativa considerada más rentable económica y socialmente.

El presupuesto base de licitación de la obra civil, infraestructuras y otras instalaciones recogidas en dicho Proyecto asciende a la cantidad de 63.910.373,41 euros (IVA incluido).

La participación en la financiación del citado Proyecto relativa a cada una de las administraciones intervinientes es como sigue:

Gobierno Vasco: 41.541.742,72 euros (65%).
Diputación Foral de Álava: 11.184.315,35 euros (17,5%).
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz: 11.184.315,35 euros (17,5%).

Considerando lo dispuesto en el artículo 6.1.2 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.

Artículo Único. Se ratifica el Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la implantación del tranvía en Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de abril de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2.291**

Mahaiak, 125. zenbakiko bilkuran, 2006ko apirilaren 4an egindakoan, honako akordioa erabaki du (00/D/08/0000092 espedientea):

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean 2006ko otsailaren 3an (14. zenbakian) argitaratutako Biltzar Nagusien Lanpostuen Zerrenda aldatzea. Aldaketa horren arabera, "atezain-gidari" eta "administrari-laguntzaile" lanpostuak "betetzeko modua" atalari dagokionez, lanpostu horiek, hutsik gelditzen badira, "lehiaketa-oposizio" libre bidez beteko dira.

Berdin gelditzen dira 2006ko urtarrilaren 24an Mahaiak hartutako Erabakian finkatutako gainontzeko edukiak.

Argitaratu Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirilaren 4a.– Legelari-zuzendaria, ENRIQUE CHÁVARRI MARTÍNEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2.468**

ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO 2/2006 ZENBAKIKO DEKRETUA, TABAKO LANEN GAINEKO ZERGAKO TASETAN OTSAILAREN 10EKO 2/2006 ERREGE DEKRETU-LEGEAK SARTUTAKO ALDAKUNTZAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ZERGA-ARAUTEGIRA EGOKITZEN DITUENA, BERRESTEKO ERABAKIA.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2006ko apirilaren 10eko Osoko Bilkuran erabaki zuten Zerga Premiazko Araugintzako 2/2006 Dekretua berrestea, zeinaren bidez Tabako Lanen gaineko Zergako tasetan otsailaren 10eko 2/2006 Errege Decretu-Legeak sartutako aldakuntzak Arabako Lurralde Historikoaren zerga-arautegira egokitzen diren. Dekretu hau Diputatu Kontseiluak 2006ko martxoaren 21ean onartu zuen eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALaren 38. zenbakian argitaratu zen 2006ko martxoaren 31ean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirilaren 10ean.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2.469**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2006ko apirilaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko Mozioa onetsi dute:

7/2006 MOZIOA, APIRILAREN 10EKOA, ZEINAREN BIDEZ ARABAKO FORU ALDUNDIARI ESKATZEN DIOTEN GASTEIZKO MENDATEKO LANEN ONDORIOZ BIDEAN SORTZEN DIREN ARRISKU-EGOERAK AZTER DITZAN, ETA ESKUMENA DUTEN AGINTARIEI ESKATZEN DIETEN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO NEURRIAK EZAR DITZATEN.

1.- Arabako Biltzar Nagusiek kezka adierazi dute Gasteizko Mendatearen lanen gaur egungo egoeraren ondorioz bide-segurtasunean sortutako arriskua dela eta.

2.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu diote premiazko moduan azter ditzan Gasteizko Mendateko lanen ondorioz bidean sortzen diren arrisku-egoerak, horretarako beharrezkoak diren gestio guztiak eginez. Gainera, eskumena duten agintariei eskatzen dieten berehala ezar ditzaten arriskuen prebentziorako neurriak.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirilaren 10ean.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2.547**

**2006ko apirilaren 24an egingo den 83. Osoko Bilkurako gaizerrenda.**

1) EAJ-PNV Biltzarkide Taldeak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaien Arabako Foru Aldundiari eska diezaioten Toki Entitateei laguntzeko eta aholkularitzarako zerbitzua gaur egun ematen duen enpresarekin duten hitzarmena alda ditzan. Aldaketa horren arabera, zerbitzu hori

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2.291**

La Mesa, en su sesión número 125 de 4 de abril de 2006, ha adoptado el siguiente acuerdo (expediente 00/D/08/0000092):

Modificar la Relación de Puestos de Trabajo de las Juntas Generales publicada en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava de 3 de febrero de 2006 (número 14) en el apartado "forma de provisión" correspondiente a los puestos de "ujier-chófer" y "auxiliar- administrativo" que pasaran a proveerse, en caso de vacante, por el sistema de "concurso-oposición" libre.

Se mantiene en los demás los contenidos relacionados en el Acuerdo de la Mesa de 24 de enero de 2006.

Publíquese en el BOLETÍN OFICIAl del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de abril de 2006.– El Letrado-Director, ENRIQUE CHÁVARRI MARTÍNEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2.468**

ACUERDO DE CONVALIDACIÓN DEL DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL NÚMERO 2/2006, QUE ADAPTA A LA NORMATIVA TRIBUTARIA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA LAS MODIFICACIONES DE LOS TIPOS IMPOSITIVOS DEL IMPUESTO SOBRE LAS LABORES DEL TABACO ESTABLECIDAS POR EL REAL DECRETO LEY 2/2006, DE 10 DE FEBRERO.

Las Juntas Generales de Álava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 10 de abril de 2006, acordaron convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal número 2/2006, que adapta a la normativa tributaria del Territorio Histórico de Álava las modificaciones de los tipos impositivos del Impuesto sobre las Labores del Tabaco establecidas por el Real Decreto Ley 2/2006, de 10 de febrero, aprobado por el Consejo de Diputados el día 21 de marzo de 2006 y publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 38, de fecha 31 de marzo de 2006.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de abril de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2.469**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el 10 de abril de 2006, han aprobado la siguiente Moción:

MOCIÓN 7/2006, DE 10 DE ABRIL, POR LA QUE SE INSTA A LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA A ANALIZAR LAS SITUACIONES DE PELIGRO EN LA VIALIDAD QUE SE ESTÁN PRODUCIENDO COMO CONSECUENCIA DE LAS OBRAS EN EL PUERTO DE VITORIA, INSTANDO A LA AUTORIDAD COMPETENTE PARA QUE EJECUTE LAS MEDIDAS PREVENTIVAS OPORTUNAS.

1.- Las Juntas Generales de Álava muestran su preocupación por la peligrosidad que supone el estado actual de las obras del Puerto de Vitoria para la seguridad vial.

2.- Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación Foral de Álava a analizar con carácter de urgencia las situaciones de peligro en la vialidad que se están produciendo como consecuencia del desarrollo de las obras en el Puerto de Vitoria, realizando todas las gestiones necesarias e instando a la autoridad competente en la materia, para que ésta ejecute medidas preventivas de forma inmediata.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de abril de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2.547**

**Orden del día de la Sesión Plenaria número 83, que se celebrará el 24 de abril de 2006.**

1º) Moción presentada por el Grupo Juntero EAJ-PNV, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava insten a la Diputación Foral de Álava a modificar, con la empresa que lo presta, el convenio de consultoría y asistencia a Entidades Locales existente, ampliándolo para prestar el servicio de Secretaría de los ayunta-

Udaletxetako Idazkaritzetan ere eman beharko dute titularra ez dagoenean (Espedientea: 07/C/09/0001646).

2) EAJ-PNV Biltzarkide Taldeak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaien Estatuko Gobernuari berriz eska diezaioten Santa María de Garoña zentral nuklearra ixteko (Espedientea: 07/C/09/0001672).

3) Misto-Unidad Alavesa Biltzarkide Taldeak aurkezutako mozioa, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaien Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eska diezaioten Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen 16.2 artikulua bete dezala hizkuntza-ereduen eskaintza dela eta (Espedientea: 07/C/09/0001678).

4) EAJ-PNV, Eusko Alkartasuna eta Ezker Batua- Izquierda Unida Biltzarkide Taldeek aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen zaien Unai Romanoren tortura-salaketa artxibatzearen aurka agertzeko eta harekiko elkartasuna erakusteko (Espedientea: 07/C/09/0001675).

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirilaren 18a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2.361**

### Iragarkia

Ritxar Bacete González jaunak, Ezker Batua-Izquierda Unida Biltzarkide Taldeko bozeramaleak, Foru Araua Proposamena egin du, Arabako Biltzar Nagusien Araudia onesten duen 1984ko abenduaren 20ko Foru Araua aldatzekoa, Lurralde Jareetako Osoko Bilkura eskualdeko politikan eta lurraldearen garapenean zehazteko, motiboen azalpena eginez eta Kamarak bere ebazpena emateko behar diren aurrekariak aurkeztuz.

Mahaiak egindako 125. bileran, 2006ko apirilaren 4a, honakoa erabaki du 07/B/02/0001737 zenbakiko espedienteaz.

Argitara bedi Proposamenaren aurkezpena Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean.

Bidal bedi Arabako Foru Aldundira, hamabost eguneko epean argi dezan zein den bere iritzia Proposamena aintzaz hartzeaz.

Aurrean esandako epea bukatu eta gero, hala badagokio, sar bedi Osoko Bilkura bateko gai- zerrendan, aintzat hartzeko.

Arautegiko 39.2 artikulua betetzearren, jakinaraz bekie biltzarkide taldeei, emandako kalifikazioa aldatzea eskatu nahi badute ere bost eguneko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko apirilaren 4a.– Lehendakaria, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

mientos cuando se precise por ausencia de su titular (Expediente: 07/C/09/0001646).

2º) Moción presentada por el Grupo Juntero EAJ-PNV, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava reiteren al Gobierno del Estado la petición de cierre de la central nuclear de Santa María de Garoña (Expediente: 07/C/09/0001672).

3º) Moción presentada por el Grupo Juntero Mixto- Unidad Alavesa, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava insten al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco a cumplir el artículo 16.2 de la Ley de Normalización del Uso del Euskera en la oferta de modelos lingüísticos (Expediente: 07/C/09/0001678).

4º) Moción presentada por los Grupo Junteros EAJ- PNV, Eusko Alkartasuna y Ezker Batua-Izquierda Unida, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava manifiesten su disconformidad con el archivo de la denuncia por torturas de Unai Romano y su solidaridad con él (Expediente: 07/C/09/0001675).

Vitoria-Gasteiz, a 18 de abril de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2.361**

### Anuncio

Don Ritxar Bacete González, Portavoz del Grupo Juntero Ezker Batua-Izquierda Unida, efectúa Proposición de Norma Foral de modificación de la Norma Foral de 20 de diciembre de 1984, por la que se aprueba el Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales de Álava para especificar el Pleno de Tierras Esparsas en política comarcal y de desarrollo territorial, conteniendo exposición de motivos y los antecedentes necesarios para que se pronuncie la Cámara.

La Mesa, en su sesión número 125, celebrada el 4 de abril de 2006, ha adoptado el siguiente acuerdo en relación al expediente número 07/B/02/0001737.

Publíquese la presentación de la Proposición, en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Trasládese a la Excma. Diputación Foral de Álava, a fin de que en el plazo de quince días manifieste su criterio respecto a la toma en consideración.

Una vez transcurrido el plazo a que hace mención el párrafo anterior, inclúyase, si procede, en el Orden del Día de un Pleno para su toma en consideración.

En aplicación del artículo 39.2 del Reglamento, comuníquese a los Grupos Junteros por si desean solicitar la reconsideración de la calificación dada, en plazo de cinco días.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de abril de 2006.– La Presidenta, MARÍA TERESA RODRÍGUEZ BARAHONA.